28garren URTEA. / 28e ANNÉE. | Nº 1449 | LE NUMERO : 5 CENTIMES | ORZIRALEA OTSAILAREN 5ean / VENDREDI 5 FÉVRIER | 1915

Herrialde guzietan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio: zoaz Eskual-Herrira

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS
Pays Basque..... 4 fr. par an.
France..... 8 fr. —
Étranger ..... 10 fr —

REDACTION ET ADMINISTRATION : 69, rue Bourgneuf, BAYONNE
S'adresser à l'Administrateur

PUBLICITÉ
Chronique locale..... 1 fr. » » la ligne
Réclames..... 0 fr. 60 —
Annonces..... 0 fr. 40 —
INSERTIONS A FORFAIT

Marchoan hasiko

Kitchener izena duen angles jeneral bati — ez othe da ere hor gurekin ari diren angles buruzagietarik lehena? — norbeitek egun hoitarik batez galda turik, ea noiz uste zuen zela oraiko gerla hau finituko, ihardetsi omen dio : « *Finituko* noiz ez nakike chuchen. Dakidana da, marchoan *hasiko* dela. »

Hasiko marchoan ja sei hilabethe huntan hasia ez balitz bezala!...

Hoik atheraldia hatik! Gureak gure, Rusoenak bertzalde, hainbertze hil eta kolpatu, presuner,..... alemanak berak, diotenaz bi miliun gizon hor galduak! Napoleon Handi zenak, egundaino, izan den gerlari gizon handienak! hamasei urthez bere eta bertzen soldado orotara bezenbat edo gehiago fundituak ja hor urthe erdi batez, karraskan, metaka, trumilka; negu bethean, eurite, elhurte, hormate eta guzien gatik aitzina hor bethi ari, ari, ari gerlan gure gizonak hilka!...

Eta holetan ontsa hastekoa oraino gerla! Marchoan behar hasi, delako jeneral handi anglesak dionaz!

Zer ziren beraz, ala deus ez oraino, agorrilaren hastapenetik hunat ikusiak? Eta zer gaude marchoan eta marchotik han harat, Jainkoak dakiela noiz arte?

×

Zeri gauden?... Alemanaren garhaitzeari, on bazaio eta ez bazaio.

Makurrera hartuz jeneral angles gurekilakoaren hitzak, iduri lukete lotsagarri. Ez nuke, adichkideak, hemen on egin nahi, bethi lotsatzeko, ikaratzeko arrazoin edo estakuru bilha dabiltzan batzu ez direla egun hautan jabetuko angles aitzindari horren erranaz ; oro zinkurin eta markinkeria begi besoak goitituz hedoietarat ; « Zer behar dugu beraz ikusi? Chahu gira! »

Baitire garbiki berri onen baino tcharren sinesterat ichuriago batzu, beren ala bertzen lotsarazle bethi, bethi minduru, bethi ororen gaiztoenerat hartzale, hau ere heiek, *Kitchner* delako angles aitzindariaren atheraldi hau bardin hartuko dautzute makur, ...onerat hartu beharra eta, onaren onez, hoberenerat.

Alabainan behar da ikusi solas bat nork errana den eta nori, zer karietara, zer chedez.

Arren buruz oso denak berehala komprenituko dautzue, *Kichner* jeneral anglesak hor ihardetsi diona gerla hunek zenbat iraunen othe duen galdatu dionari ihardestean, erran nahi ziola : « Eztu alemanak oraino fini, ez eta ongi hasia ere gurekilakoa; marchoan, marchoan eta handik harat zinak eta minak. Eztaki frantsesen, rusoen, anglesen etsaiak zeri dagon!

« Alemaniak egundaino ukhan duen zafraldirik ederrena sarriko, primaderako eta, beharrez, udako diogu preparatzen ari.

« Ari gira, ari, gizon, tresna, zaldi, zateko, behar diren guzien biltzen alde orotarik, itsasoz, leihorrez, bazter gujietan ditugun herrialde adichkidetarik. Zer nahi heldu zauku. Biltzen ez dugun laguntzarik ezta.

« Aski bil uste dugu ja marchoko. Ageriko da orduan, azkarrena nor den ».

×

Horra zertara doazin *Kitchener* soldado aitzindari angles gure adichkidearen solasak.

Zer duzue hor gure eta gurekilakoen lotsaraztekorik?

Ja bihotzean barna sarthua dugun konfiantza osoaren gainera, zer nahi zinuketen entzun bihotz altchagarriagorik?

Jainkoak beira nezala hemen hitz bakar bat ere erraitetik, herioak hunkiturik nigarretan,, edo jo ditzan beldurrez ikharan daudeneri min egitekorik!

Bati ez giniozke ahalaz begiak bustiarazi nahi, hau irakurtzearekin.

Ez ditu nehork, — arimaz egia ! — guk baino urrikariago gerlan hilak eta heien jabeak, hetaz bethikotz gabeturik hemen gelditu dohakabeak : burhaso zahar, alharguntsa gazte, haur ttipi umezurtz eta bertzeak.

Bainan eztugu hetaz hemen egungo solasa. Hilik gabeko gerlarik ezta egundaino izan; ez izanen ere. Hil gutiago eta hobe; laburrago gerla ere ba ; hobe oraino, ahal balitz, gerlarik sekulan ez.

Bainan zer egin, bortcha denean eta ezin-bertzea ? Gerlan gira, nahi ala ez. Zer iraun dezaken elgarri galdatzeak, ez eta ihardesteak eztu, ez luzatuko, ez laburtuko gerlaren iraupena.

Iraunen du, ororen buruan, behar dena, erran nahi, elgarren lagun hor ari diren erresuma azkarrek ororen etsaia barkamenduskatzeraino garhaitu arte.

Noiz dugu garhaituko; noiz, behin eta behingo hezirik, nehori behin eta behin kalterik ezin eginezo heineratuko, noiz : hori dugu gogoan ekarri behar; hori, galdatu frantsesak anglesari, anglesak frantseri, eta biek rusoari; rusoak bieri; eta ez noiz den gerla finituko, nolazpeit hor.

Anhartean, zer nahi gosta, jo muturrean etsaia. Gu zailago eta hura hauskorrago joanen da , eta ororen buruan, ... laburrago gerla.

Nahi bezen azkar izana dadin ala izaki oraino ere, aleman tzar hori, ez dugu zeren lotsa; ez izi. Are gutiago etsi.

Ez etsi bereziki, guhauren soldadoak, ba eta rusoak, eta ba holetan anglesak, bertzeak bertze, geroago eta gutiaditugularik ikusten ukho egitekotan.

Geroago azkarkiago gauden elgarri, Jainkoa lagun !

Berriak egunka

Asteart, urtharrilaren 26an

Sailaren buru batetik bertzera izigarriko indarrak eginik dago etsaia; oro alferretan. Nehon ez dugu zehe batez nausitzerat uzten.

Ypres hiriko aldean, Beljek hartzen dute esku-gain puchka bat; guk gure lurerrekak badauzkagu azkarki, alta zazpi ahalak egiten dauzkutelarik, handik gu jal-arazi nahiz.

Halaber anglesak beren ziloetan daude tente, beren hatzean, etsaia bortz alditaraino igorriz ferafutro, doala gibelerat jin bidez.

Craonne eta St-Hubert-eko inguruetan ber oldar, ber gibelatze, nehorat neholere gure lerroak ezin hautsiz. Emazue hor!

Hartmansveilerkopf delako toki zail harek ere badu zonbeit kanoi ukaldi ukanik. Haizeari buhatzeak bezalatsu bezen guti kalte.

Thann hiriko aldean bardin.

Bardin *Lembach* eta *Sentheinen*.

Caucase mendietan rusoek ere azken pampakoak ari daizkote turkoeri emaiten. Aireko *Zeppelin* hetarik bat, petik gora tiroka zilaturik, itzulipurdika jauts arazi diote rusoek alemaneri.

Astezken 27an

Ezin etsituz ari zauzku, jazar eta jazar; ba eta zalhuchko gibelerat egiten ere, aldi bakotch, beren onetan : berantegi zonbeit aldiz, berenak harturik.

Nieuport eta *Ypres*-eko aldean borrokaldi onik etsaiak frantses, angles eta beljekin. Hauien eskuetarat erori zeie beren gizon chorietarik bat hil hurrana.

Argonen baionet ukaldika garhaitu ditugu. Atzo gizon hanitz hilz diotegula ageri da egun. Egungoak bertzalde.

Montsnegrin-darrek garhaitu dituzte Otrichianoak alde batetarik, bertzetik rusoek. *Bokovine* deithu tokian ere aitzinatuz doazi rusoak.

Ortzegun, 28an

Egun ona guretzat. Alta beren dako zaukaten alemanek egun hau · gaitzeko pesta behar zutela egin; atzo baitzituen *Guillaume* Emperadoreak, 27*an*, bethetzen bere 56 urtheak, eta gain-gainetik manatua baitzuen behar zutela egun hortako, gostaia gosta, bitoria handi bat.

Bitoria orde ukhan du Jaunak zafraldi bat ona.

Sail guzian irabazi dugu esku-gain puska bat Beljikan guziz lur zilo andana bat chehakaturik daude gure artillurak.

Arras, Noyon, Soissons hirietan, aleman infanteriak uko egin behar ukhan du, gure suari ezin ihardukiz.

Reims-eko aldean, gure kanoi handiek etsaiarenak ichil-arazi dituzte. *Alsacen* ere aitzinatuz goazi. Rusoak aldiz Prusiako lurretan.

Turkoak ja gerla huntaz asecheak dire. Bethi galtzale, bethi etsaia nausi, ezta gocho!

Ortzirale, 29ian

Orotan gaina dugu, hartako doi; batzutan gehiago.

Airez aireko tresna hetarik bat aurdikitzen dugu, tiroka zilhaturik. Bertze batez jabetzen gira *Gerbaviller* hiritik hurbil.

Ypres, Lens Arras-eko aldean gure suak etsaiarenari badauko, gainez gain.

Dunkerque hiriari aiher da bethi alemana; aireplanetarik *obus* ukaldika hiltzen dauzkute soldado ez diren batzu.

Strasbourg hiri handia eta bertze batzu har ditzogun beldurrez, gau eta egun erne dago etsaia.

Gure deputatuek onhartzen dute Gobernamenduak eskaini lege berriaren chedea : ez uzteko arrotzik nola nahikan frantsestzat onharturik izaitea.

Ordu zen; orai arte arrotz aleman eta bertze sobera baikinuen gutartean sarthurik, Frantziaren kalte handitan.

Lan ederra deramagute rusoek ere.

Larumbat, 30ean

Egun hil, ezti bat, bana bertze. Beljikan artilleria azantza izpika bat. Lan zinezko guti.

Cuinchy herritik bi urhatsetan, anglesek garhaiturik igortzen dituzte han harat hiru bataillon aleman, hil pilichta bat lurrean utzirik.

Urrunchago, bateria bat andeatzen dotegu eta bolbora untzi batzu jauzarazten.

Soissons, Craonne Reims-eko inguruetan gure artilleriak lan ederra derama.

Vœvre deithu tokian etsaiak, nahiz gure lur zilatu errekak oro nahasi, bereak ditu porroskatu. On diola!

Igande 31an

Artilleriak bero dauzka egun bazterrak *Nort*-eko aldean.

Ypres hiritik hurbil, alemanek nahi ginituzten gure lur ziloetarik jali-arazi, guk ditugu hek berenetarat sar-arazi, hil ez ditugunak, infanteriak eta artilleriak elgar lagunduz.

Erran gabe doa, biziril gibelerat igorri baino gehiago diotegula hil.

Aisne ur handitik hurbil ihiztari on agertu dire gure artillurak; lan hasi batzu desegin diozkate alemanari, eta izialdi bat ona eman hanche, behin orhoitzekoa.,

Champañan, oihan batean guk hartu eta ederki arkarturik ezarri toki batzu, bezperagoan guretuak, finkiago gerizaturik ezarri ditugu.

Argonne-ko aldean etsaiak ageri du, ahultzen ari dela.

Deus guti beitze aiphatzekorik.

Astelehen, otsailaren 1ean

Bethi artilleriaz da solas, azkarki mintzo direla kanoiak bethi, bereziki *Nort*-eko departamenduan.

Zoin guti aiphu aspaldichkoan zaldizkoak (la cavalerie) eta (infanterie) oineko harmadunak!

Erreka zilo hoitan gorderik egon beharrezko ezin bertzeak du ekartzen, artilleriaren gehiago behartze hori.

Gezurra dute alemanek hedatu — ez baitute lehena! — *Carenchy-Bassée* delako eskualdean erreka batzu, guk ezin gure atchikiez jabetu dela etsaia.

Beren aldeko egiarik ez duketenean, bota gezurra!

Gezurrezko ehun bitoria baino guk nahiago egiazko bat, eta hura segura, ez izanik ere alemanen espantuak bezen handia

AITA SAINDUAREN MANUA

Bihotzminekin ikusirik, gerla hunek zenbat gizon gazte dituen hil-arazten, zenbat familia eta hiri nigarretan ezartzen, zenbat erresuma eder eta aberats bere zirimolan eremaiten; jakinik, joz sendatzen eta barkatuz beiratzen duen Jainkoak uzten duela bere bihotza ukitzerat urrikitan apalki saltzen direnen othoitzez; nahiz, kanoien orroa baino azkarkiago entzun-arazi fedearen esperantzaren eta karitatearen oihua, bertute hoiek baitute bakharrik Jainkoarenganikako indarra gizon guzien biltzeko bihotz eta arima batean — gure Aita Saindu Benoit XVak sustatzen eta othoizten ditu apezak eta fededunak, egin dezaten penitentzia Jainkoaren zuzenezko zigorradak gure gainerat eror arazten dituzten bekatuen barkamendutzat ; eta dembora berean, manatzen du munduu katoliko guzian othoitz kartsuak eginak izan diten Jainkoari buruz, haren bihotz urrikalmendutsutik ardiesteko, etsaia behin gerhaiturik hain nahituak garen bakea.

Hortako, Aita Sainduak, manatzen du, Europa guzian Sexagésime deithu igandearekin hori baita otsailaren 7an — eta munduko bertze bazter guzietan, Pasioneko igandearekin, hori izanen baita martchoaren 21an. — ofizio bereziak eginak izan diten hiri, herri eta komentu guzietako elizetan. Huna nola.

Goizean, meza nausiaren ondotik, Sakramendu Saindua ezarria izanen da ageri an, eta, isentsatu ondoan, kantatuko da *Miserere mei, Deus* psalmoa eta gero · Da pacem, Domine, in diebus nostris, quia non est alius qui pugnet pro nobis nisi tu, Deus noster. — Fiat pax in virtute tua, et abundantia in turribus tuis — eta othoitz horri doakon orazionea.

Sakramendu Saindua egonen da agerian egun guzia, eta ontsa liteke haurrak ere adoratzeko hor aurkitzea ahal bezenbat.

Arratsaldean, Sakramendu Saindua tabernaklean sartu baino lehen, erranen da arrosorioa, eta gero beherachago den othoitz berezia, Aita Sainduak berak egina baitu bakearen ardiesteko. — Horren ondotik kantatuko dire Sainduen litaniak. Adorazione egunean bezala; gero segidan Parce, Domine .. desmasia zerbeiten geldi-arazteko egiten diren prosesionetan erraiten diren othoitzekin, bakearen ardiesteko den orazionea emaiten zaiotelarik oraino.

Azkenik kantatuko da Tantum ergo, eta emanen Sakramendu Sainduaren benedizionea, beti bezala.

Jainkoaren grazien nasaikiago jautsarazteko, Aita Sainduak galdatzen diote fededuneri hurbil diten Penitentziako eta Gorputz Sainduko sakramenduetarat. Emaiten diote indulientzia oso bat, kofesatu eta komuniatu eta goizeko edo arratseko othoitz hoitan aurkituko direneri, edo agerian egonen den Sakramendu Sainduaren aitzinean zenbeit demboraz othoitz eginen duteneri.

GASPARRI,
Kardinale ministroa

⁂

Huna berriz ere Aita Sainduak egun hortako egina duen othoitza. Azkeneko aldian agertu da huts zenbeitekin, eta ez osorik.

OTHOITZA

Bihotzminekin ikusirik erresumak eta jendekiak bere zirimolan deramazkan gerla izigarria, zure Bihotz guziz amultsuan, o Jesus, bilatzen dugu ihes-leku guzietarik hoberena. Auhenetan galdatzen dugu zure ganik, Jainko urrikalmendutsua, geldi dadin izurrite ikaragarri hau. Zure ganik, Errege bakezkoa, igurikitzen dugu hain nahituak garen bakea.

Lehenago karitateak zure Bihotzetik argitu zuen lurraren gainerat, etsaigoa urrundurik, amodia bakarrik nausi egon zadin gizonen artean. Lur huntan bizi zinelarik, zure Bihotza urrikaldu zen, ezin gehiago, gizonen zorigaitzez. Bihotz hori urrikal dadiela, berriz ere, guretzat jazarkunde gaichtoz eta desmasia ikaragarriz bethea den hinka dorpe huntan.

Urrikal zaite hainbertze amez, ez batakite zer bilakatuko zaizkoten beren haurrak; urrikal hainbertze familiez, gabetuak baitire beren nausiaz; urrikal azkenekotz Europa dohakabeaz, galtzera baitoa.

Emozute buruzagieri eta populueri eztitasuna maitatzea ; egizu erresumak elgarrekin nahasi dituzten makurrak antola diten eta gizonek berriz ere elgarri eman dezaten bakezko musua. Zuk, zure odola ichuriz, elgarren anaia egin dituzu. Eta nola, egun batez, jondoni Petrik othoizten zintuelarik « Jauna salba gaitzazu, ezen galduak gare », entzun baitzinuen horren oihua, itsasoaren hasarrea eztituz, berdin orai gure othoitz minak, entzunatzu guri barkatuz eta emanez hola nahasia den lur huni ddeskautsua eta bakea.

Zuk ere, Birjina guziz saindua, bertze egun izigarri batzuetan egin izan duzun bezala, orai ere lagun gaitzazu, geriza gaitzazu, salba gaitzazu. » Halabiz.

BEÑAT GALTZA HANDI

Airea : *Gitarra joilea*

1

Berriak igortzeko gerlako tokitik
Galdeka ari zaizkit Eskual herritik.
Banian zer nahuzue nik igor hemendik
Charrik ez igortzekotz, gutichko da oniek.

2

Hanitz etsain kontra gerlan ari gare,
Amorrik eman gabe oraino batere ;
Hotzak eta bustiak izanikan ere
Lurpez lurpe gabiltza satorraren pare.

3

Aho churirik ez da, ez, gure artian ;
Jan-edanak gostu du gerlako toikan.
Marmitaren ondorat oro ingurian
Laster bilduak gare ordua denian.

4

Nik dakidan bat ez tu janak gaizki hartzen,
Hunek odol gaichtorik guti du egiten.
Harra bezala hemen ari da gizentzen
Hunat jinez zeroztik itsuski loditzen.

5

Galtzak gerrian ditu jarriak tinkegi,
Nahiz largatu izan dituen bi aldi.
Orai hek ezin jauntziz, gibelaldi handi,
Galtzarik gabe behar othe du ibili ?

6

Berriak ukhanen tu fitechko agian
Nik ez ditut tinkeki nereak gerrian
Hemengo Eskualdunek, guziek batian,
Ez dute irabazi hoinbertze pizian.

7

Hamabi kilo ditu ja irabazirik ;
Nork daki sarri zonbat, hola doalarik,
Eginen ahal tuen, ez badu goserik ?
Agian helduko da etcherat osorik.

AIZIRITZ.

Gerlarien berri

Utharilaren 20an

Aste huntako berriak labur emaiten daitzut. Dembora eta gogoa bak eskas ditut solas luze bati lotzeko. Barkhatuko dautazu aldi huntako.

Aste dorphea, aspaldian ukhan dugun dorpheena, etsaiaren partetik.

Aroak iduri du altchatu nahi duela. Atheria dugu zonbait egun huntan. Hotz samin bat, bainan ez dugu hortaz errengurarik · uria dugu gehienik partida.

Erran dautzut iragan astean zer gerthatu zen duela hamabortz egun Soissons hiriko inguruetan; Alamanek egin zutela hor indar handi bat, urak goiti zohazilarik, eta frantsesek gibelerat egin zutela urez beheitiko alderat, zubiek amor emanik.

Reims hirirat buruz, urez haindiko aldean gelditua dago, toki beretan, muthur bat bezala sarthua etsaien a tean, Belgikarateko bidean, bertzeak baino gorago.

Holakorik ez zezaketen jasan Alamanek. Ageri zen geroztik entsegu handi bat eginen zutela hemen gaindi.

Hogoi ta bortzean lothu dire. Bezperan, Iaor hiriko gain hoitarik jauts arazi dituzte bospasei errechimendu, gaur az. Gure soldado hainitzek diote gau harfan entzun zutela beribil handien a zantza.

Dena den, biharamunean lothu ziren beren lanari, eguerditan.

Gisa hortako lan handi bat egin nahi denean, kanoiek lehenik dembora luzaz bazterrak zafratzen dituzte, gizonen harritzeko beren erreketan, eta bidearen idekitzeko lurra harrotuz. Gero soldadoak atheratzen dire, eta jo aintzina.

Beraz eguerdi gainean abiatu ziren Alamanen kanoiak eta bertze tresna guziak karraskan ifernuko azantz bat egiten zutela.

Frantsesen lehen lerroen aintzinean bazen harroka zilho handi bat, lurpean barna zohana. Atheibe segura ginaukan hori. Errechimendu osoaren kokatzeko tokia bazen hor nasaiki,, eta baziren bi kompainia pausuan zagozinak barnean bospasei ehun gizon.

Sei zazpi metre harri zabal harpearen gaina; menderen mende ihardoki behar zukeen gizonen tresneri,

Horra nun Alamanak harpe horri buruz ari diren beren tresnekin bolbora eta burdineria aurdik eta aurdik .. Demboraren buruan, han hemenka zilhatzen dute harroka gaina, lurra leher arazten athearen aintzinerat burrustan ..

Barneko gizonak setiatuak dire. Bizirik hartzen dituzte ..

Toki hori eskuratuz geroz, aintzineko lerroetarat egiten dute beren oldarra.

Launazka, deskantsuan gizon azkar eta gazteak oraino, jiten dire multzoka.

Eskuz lotzen dire lurrean sarthuak

diren egur punta eta alambre tzarreri; kolpatuen altchatzaleak ere han dituzte, aberen « brankarrak » zabalik .. Bertze batzu, zakhu batzu bizkarrean, lurrez betherik, hartu tokiaren gerizatzeko.

Horra nun jausten diren ehunka eta milaka .. Hanbertzenarekin Alamanen kanoi handiak urrunerat ari dire, gibeleko herrietarat eta bide guzien gainerat, Frantsesek ez dezaten igor laguntzarik.

Orduan da gerthatu hortchet odol ichurtze izigarria Alamanen lerroetan.

Frantsesek beren erreketarik tiroz eta mitrallusekin garbitu dituzte lehen kompainiak. Eroitzen ziren Alamanak metaka, lerroa lerroaren gainerat, segak ogia deraman bezala.

Azken lerroak heldu dire gure erreketaraino, eta gure lur puska bat beretu dute.

Bainan laster Frantsesen aldi beren oldarraren egiteko. Jauzian lotzen zaizkote berriz, Alamanak ez zirelarik oraino kokatuak, eta han harat igorri dituzte jin bidez.

Eskualdun zonbeit gerthatu dire gudu horietan, bainan indar handiena egin duten bi erechimenduak ez dire gureak.

Ihardoki dugulakotz azkarki, Alamanek baino biziki gutiago gizon galdu dugu.

LAPURDI

URRUÑA

Bertze ainhitz herritan bezala, gerlak ekharri dauku orai arte guri ere bihotzmin askol Jadanik, hamabortz baten hil-berriak ethorri zauzkigu . Ochala azkenak balire!

Gure *gazteria katoliko* ederra, bertzen artean, ez da guti kolpatua ! batasun hormantariz leren *Presidenta, Etienne Gaenza, Fago-koa*, buruan kolpaturik, hil izan da *Isère* departemenduko ospitale batean. Bizirik salbatu nahiz, operazione dorphe bat egin diote, bainan alferretan.

Bere familian huts handia eginen du, bainan ez gutiagoa herrian, eta bereziki, gazterian; zeren zen muthil gazte ezin gehiago prestua, gogorki gisakoa ; deusetan elhepiderik eman ez duena. Jainkoak holako ainhitz igor dezagula!

Badugu esperantza, *Etienen* gorphutza bilduko dutela herrirat ; hori izanen da haren etchekoentzat kontsolamendu handi bat; herritar eta gazte lagunentzat ahuko eder baten egiteko okasionea.

Bachenabarre

ARNEGUY

Ambroise Goytino, Arneguy-ko erretora Jainkoak bere-ganatu du 46 urthetan, zazpi urthe zituelarik herri hortan zela.

Camboarra zen sortzez; egon den tokietan, gaztedanik apez on, zuhur, kartsu baten orhoitzapena utzi du. Eliza gizona zen, arthaldeari bihotzez atchikia; jarraikia lanari, on zeno.

Eritasunak ez dio utzi nahi zuken ongiaren egiteko ahala. Ja izana zen lehenago, berak eta bertzek haren osasunaz etsitzerainokoan gaizki; aphur bat onthuchea, uste ginuen bazela zonbeit urtheren apez oraino, nahiz bethi erikor.

Orok nahi zukéten baino lehenagó dauku eskas egin behar, apez soberakinik, ez eta ere aski Eskual-herrian ez dugun kenka hits huntan.

Nondik athera hilen eta gerlarat joanen ordainak ?

Nahiz ez daukun nehork deus igorri Arneguy-ko erretor onaren itzaltzeaz, bihotzak etzaungun emaiten bi hitz hauk bederen gabe uztea demboran *Eskualdun*-ari atchikimendu berezi bat erakutsia zion apez adichkide ona.

Oraiko laguntzaleri bezala, esker diotegu hemen ohikoeri ere, berèziki eritasunak dauzkunean gutarik urrundu, orduan ere nolazpeit oraino atchikiz elgarrekilakoa.

Jainkoak sarista ditzala borondate oneko gizonak.

Othoizten gaituzte hau hemen eman dezagun :

I. SALZEDO FILS & Cie-ren Bankako-Hartceduruer

I. Salzedo fils & Cie-ren bankako hartceduruak abisatuak dira beiratu behar direla ukhiten dituzten eskeintzez bere hartzen merke saltziaz kestione.

Guizon den arguituenek ez dezakete eran oraino hartce horiek çonbat yaliko dut en ehunaren dako. Espekulacione ausart baten meneko izanen dira bere kaltetan delako eskeintzer kasu eguinen dutenek.

Beraz ez da deusik on hartu behar nehoreren ganik, pensaketak no berak eguin gabe eta presuna arguitu çonbeiti edo adiskide leyal eta guibeleko bortarik gabeko bati abisu galdeguin gabe.

Guardia beraz berri berduratzaler eta eskeintza eguiler.

Ziberoa

ATHARRATZE

Emile d'Arhanpe jauna hil izan da hilabete houmen 26ian. Ez dugu erran beharrik zounbat izan den jaun houra bide hobereneko. Ez du ukhen etsaik ez beitu egundano egin ihouri den gutieneko nagabia. Atharraztar zen odolez eta bihotz osoz. Gaintika etchekiten zen bere herriari. Haren nahikunte handienetarik bat izan da Atharraztarren arteko batasuna eta bakia. Ez du sekula, hiriko mera, Arrondisamentuko kontseillari zelarik, ez beste arrastan, politikako gora beheretan, ihouren beithan aihergouarik phitz erazi; bena haatik gogorki bethi egon da bere sinhestetan; bakia eta erlijionia beimatu dutu egin ahalaz.

Bere denboran ez dutu ahatze beharretan zirenak; lagungoua eta helturak nasaiki eta herotsik gabe, hedatu dutu hanitch lekhutara. Ez bada ezagutze houn batez bethi saristaturik izan, ez da sekula arrankuratu nourbaiten kountre.

Atharratzeko etche zaharrenetarik beso baten azken laia zen Emile d'Arhanpe Jauna; erori da eta haren arima ederrak hartu du zelietarako bidia.

BRIGANT BAT

Desclaux, Algerian garden errezebur ttipi zagonak, ukhen zian Frantziako jaun entzun batekin ezagutzen egiteko bidia. Etzen gaizki gerthatu.

Jaun harek Pariserat bildu zian eta ukhen erazi zeron enplegu handienetarik bat.

Egunko egunian, Desclaux, gizon chuchena, armadetako soskari buru zen. Badakizieira zer egiten zian bere 50 mila liberatako soldataren emendatzeko? Soldadouentako mundu orok igorten zutian sokhorrietarik beretako eta Aleman eta Autrichien batzuentako, baztertzen zutian pharte hobenetarik hanitch.

Itzalian da gizona; ordu zen.

LIGINAGA

Ez dugu izen eman beharrik. Herri osouak badaki nourk ezari dian, diala zounbait denbora, Liginaga, nahasirik nourk ,bakia khen eta, sar erazi dian hen, ben aharra gorria.

Eta orai nahi dianak kontzientziaz mintzatu, ez othe dia aithorturenzer egitatia jaukirik izan den, gizon chuchen baten presountegian sar-erazi nahiz? Hori da kanaillakeria!

Justiziako gizonek halere, bai Dona phaleukouek, bai Pauekouek, ezagutu die bertan nontik horra zen erauntsi zarra. *Biscayçaeu* utzuli da gibel bitoria handitan. Beste nourbaitek behar luke, sarrichiago, hartu Tribunalialako bidia; hori ere gertha daiteke.

Biba Biscayçacu! Ez da houra lotsatu zounbait bazter hausleren mehatchien gatik; harek erakatsi du gizonak ez diala behar erori-ihouren builhuretara, bainen ba bethi egon bere buriaren ausi

BASABURU

Jaun kaseta egilia.

Igaran asteko hitz aldi batez erraiten zunian Goberniari errenkura eginik izan dela gerlakarien familier errefusatu tien sokhorrietzaz.

Errenkura, hori nahi dit, arraz oueki eginik izan ahal den zombait lekhutan, goure artian aldiz uduri zitatzut erren kura egiteko lizatekiela sokhorri ema netzaz.

Uduri zitazut. Goberniari hel erazteko lizatekiela unguru baten egitia goure herrietan ikhousteko ez othe dienez behar rik gabetto eli batek hounkitzen diharu phezatto eli bat, hobeki baliaturik lira tekienak gerlako gastien bardintzen.

Goberniaren eretzetik egitate houna duzu bere indarrak bere odola ere halako aldiz Franziarentzat emaiten hienen familiak ez titian izan gabezian, miserian, eta hortan oroek ounhesten dizugu goure Aitzindarien nahi houna bena segur duzu Goberniak eztiala nahi sokhorri hor ren eroraztia aisian dien laborari eli ba ten gaña.

Segur duzu memento batentzat berere Goberniak utzi diala saihetsialat politika galgarria, eta bere kholkhokhouen besteren damutan bountzia beitzaki bere kholkhokouak eztirela aski Alemanen Franziatik kampo ezarteko; beitzaki Franziako haurrak oro, Franziako indarrak oro eztiratekiela sobera, lan handi horren burutzeko.

Kampoko etsaiari arien gerla egiteko bakia eta batarzuna aholkatu dizu eta manhatu.

Bena Basaburian batizuge gizon eli bat, gerla izigarri horrek orano hounki eztutianak; gizon herradun eli bat, ezpeitie beste phentsamenturik gerlaz baliatzia baizik beren ophilari su emaiteko; bere komerzio chipiaren ountsa jouranezteko eta dagun egunetako bozken hurruntik preparatzeko.

Alemanak munduko jenterik hugungarrienak eta abrenak diela oroek badakizugu; bena heben gaintiko blokar usatiek badizie, hek eztiena, beren lagunen herra, eta hen ezin ikhousia, ezpadira hen houñetan ahospez emaiten.

Nik heirazko gizonak, gizon itchousiak deitzen tit zouñek ere gerthaldi triste horietan bere gezurez baliatzen beitira bere kholkhiko eztien behairranten zapatzeko, eta bere adiskide aisian bizi dienen orano kobeki goratzeko.

Ere, Jaun, kaseta egilia, nahi neikezu begien aitzinian ezari egun hoietarik batez buciala jin ideia bat.

Nahi nikezu zoure kasetan ezar ditzatzun goure gainti hountan gerlako sokhorria ukhen dien familien ororen izenak.

Holaz jente chuchenek eta ounestek, jente besterenez gizentu nahi eztienek ikhous liozie nour dien ahalkerik gabiak, nour dien arrapatoutak,, hetarik hurrunska egoiteko, eta beriaz baizik bizi nahi eztieneki bere errelazionen hartzeko.

Beste lista batetan eman ahal zintio zoin ere sokhorri nori galthaturik saihetsilat utzirik izan beitirade goure gichotez, edo herradunez; bi listen algarren khantian ezartez behar bada zombaiti ahalkia borontiala eroriko ziezu, eta nountik nahi jente gisakouek badakikezie noutez zer phentsa.

Erranen deitadazu, beharbada, Gobernia *Comité* deithu bilkhura bat egitera doala gaiza hoietan chuchentarzun amiñi baten ezarteko; bena orhit zite *Comité* haren iseiak auherretan diatekiela, zeren eta bilkhura hartako gizonen argizaliak beitirate, ez herriko kountzentzia dunak, bena bethi hanko gichotak eta herradunak.

Arren berriz ere ene ideiala, houna nuzu, eta lan hortan esku kolpu baten emaiteko orhit zite banaizula; haita ezazu alde hortan nourbait allertik ikhertze horren egiteko; hitzemaiten deizut atzemanen diala eskiak noun trempa

Zoure zerbutchari eta adiskide houn.

GIZON ULHUNA

Nourk ez du ezagutzen ? Kharrikotan badabila gora behera, buria aphalik, uduri zerbait nahi gabe handi ukhenik, eta igarailer ez kasurik egiten, mintzatzen ez bazaitzo.

Zer ouste duzie diala haiñ ulhun izateko? Galtha izozie; ez zide segur deus entzun gabe baratuko.

Ez dakizieia gerlaren galtzera gouatzala? deizie erranen. Errozie egun oroz emeki emeki goure soldadouak etsaiaren gibel-erazten ari direla; goure *kanou* horiek Allemanak milakaz erhausten dutiela : ez du deusere sinhesten.

Kasetak ezariak hartzen dutu, deizi iharduetsiren, gezurrak egiak bezala; ni lotsa niz orok behar dugun Aleman bilhakatu, ezi goure lurrian laketuik dira, eta ez dutie gibel eraziren sekula.

Bena, gizona, negu bihotzian gira; sasou garratz houneûkin ez deite « batailla » seriousik egin; eguruk-ezazu demborra egerra jin dadin, eta ordian beititukegu berriz beste bi lagun, Italia eta Roumania, zalhe kampo ezariren dutugu goure Frantzia ederrien sartzera ausartatu dien Aleman tzar horiek.

— Dembora tcharra gatik hourak bethi aitzina ari dira. Ez dutieia egun horietan orano Angleterran bomba zounbait ourthouki airian ebiltzalek eta gizon eta emazte saldo bat eho ?

Eta badakizia Italia eta Roumani goure althe jelkhiren direnez ala kountre? Houna zer ihardetsiren deizien berriz ere.

«Ez dutu berak ere sinhestan erraiten dutianak oro; kaseta guti irakourtzen du, eta denak gaizki enthelegatzen; bena zer nahi duzie? alde hortarat hasi ea behin; bethi ere baou okher alde bat, erran nahi beita, bestek erraiten dutienen ezeztatzeko nahia. Hortakotz ere osoki bere usatu saillian dago; eta haboro dena, ikhosten du emaztetto zoumbait ahouak zabalik behatzen zaitzola nahiz herriturik etchekiten dutian, eta hori ere ouhoure zaio.

Bai badira malerouski, sobera haou uduriak goure herrietan Alemanak bezain etsai hugungarriak beitira goure Eskualdun familientako.

Ountsa phentsatzera, zer dakie haboro eziz bebatzen zaitzen emazte gachouek? Haborouek ez dakie irakourtzen, eta bethi khountatuo deizie zerbait ichtorio izigarri lasetetan ihouik ikhousi ez dianik.

Zer ageri da hortarik? Ala kasetak egiak gordatzen deizkiela, ala gizontto horiek bazterrak gezurrez hanturik etchekitzen dutiela? Kasetek ez badie aiphatzen, horiek barreiatzen dutien gaiza lazgarriak; nountik dakitze airen? Ala ouste duzie gerlan ari diren lekhietan badutiela gehien zoumbait esku-peko, zouiñek sabantzen beitut[illegible]?

Ez, adichkidiak, ez, gezunez bethatzen zutie; zien beithan esperanchaten phizteko phartez, lotsa sar-eraztea deizie maite : dutuzienak ez dutuziela arra-ikhousiko; azkenekotz hainbeste zaouri egiten deizie bihotzetan, noula Alemanen balek egiten beitie hatzemaiten dutien zien semen khorpitzetan.

Ene phartetik diot merechi lukela holako gizonek itzal houn batetan egun zounbaiten igaraitia amorekatik odola berri dakien; bester phartitzen dien lotsa hortarik mouchi bat beraier sar dakien, eta Alemanen althe bethi mintzatzeko phartez Frantziaren sustengatzia delibera dezen.

Bihotz oroz khambio hori desiratzen deiet pherecikari beltzer; bihotz oroz khambiatzen ez direner ez behatzia galthatzen deiet sinheskorrer.

ZER ETA ZER

HANGO BERRI

Gerlatik oraino deusere berririk igorri etzaungun adichkide batek bidali dauzku zonbeit lerro, zinez atsegin hartu baitugu, heltzen dauzkun berriñoez bezenbat edo gehiago, ikustateaz. Balakite zonbeitek zoin den lakhet lan huntan, ahal duen bezala, hemen ari denarentzat, laguntzalerik hoberenak, eta nola nahikoak ere kasik oro gerlak iretsi ondoan, agur baten ukhaitea, gerla toki hetarik!

Guretzat gocho, ba eta *Eskualdun*-aren irakurtzalentzat. Milesker ez badiotegu orori berehala ihardesten izkirioz, barkatuko daukute, balinba! ..

Huna bethi zer dion gure azken berri heltzaleak.

Adichkidea,

Haizeak ekarri dauzkit — nori esker? zuri othe? — bi astez, elgarretarik ez hain hurbil, bi kazeta *Eskualdun*. Ikusi bazinu zer begiak ditugun ideki hemen giren eskualdun bakarrek, gure izeneko kazeta maitearil Milesker gutaz orhoitu denari! Zu balinbazira hura, jarraik zazkigu othoi; ez ahantz igortzea. Guti girelakotz hemen, horko berri goseago baizik ez gira.

Behin baino gehiagotan gogoan erabilirik nago, ni behinik behin — hemen naizen bezen egia erraiten dautzut — lagunekin aiphaturik ere ardura, hemengo berri larrienak bederen igortzea noiztenka Eskualdunerat, ordainez horkoen ukhaitekotan.

Bainan hastapenetik entzunak ginen « *les Censeurs* » direlako zethabatzale jaun begi zorrotzek etzutela hitz bat uzten pasatzera bertzeak baino goragokorik. Lotsagarri zen garbiki.

Eta gero ez dire gerla toki hauk, bereziki gu gabiltzanak, lumarekilako buru lanentzat eginak.

Denik ere, larderia eztituche da « *censeurs* garratz heien aldetik, eta guhaur ere hein bat jarriak gira hemengo biziari. Orotaratzen da azkenean, aro gaichtoar ihar[illegible]duk dezokena.

⁂

Dena den, murritz baita herritar adichkide batzu elgarretarik hoin urrun egoitea elgarren berririk gabe, othoi nolazpeit jarraik-araziko daukuzu *Eskualduna*, eta ordainez hitz-emaiten dautzuti ez uztea orai arte bezala, osoki barur; ahala eginen dut hemen ikusietarik zerbeitez bethetzeko, gure kazetañoan, sail osoa ez badezaket, bederen choko bat.

⁂

Gureak hemen baino eskualdun gehiago daukan errechimendu bat ederki arizan da berritan hemendik hurbil. Gizon adineko batzu indar gaitza eginik daude iragan egun hoitarik batez. Frantsesak pausatzerat joan ziten, anglesak eta heiekilako indiatar batzu eman dire heien ordain lur ziloetan.

Bainan ez baitziren oraino sobera trebe sathor gerla huntan, etsaiak jali-arazi ditu laster, bera sartzeko heien tokian.

Baia ba?! Zalhuchko gure frantses ginharritsu pizkorrek *demi-tour* egin dautzute angles laguneri utzi erreketarat buruz; handik haizatu alemana, indiatar eta anglesekin bat eginik.

Baitut han aneia bat, harek dauzkit igorri chehetasunak ; baizik eta sei kilometre bide egin zituztela beren lagun angleseri utzi tokitik alemanaren kentzeko; sei kilometre, zer oldarrean! .. Au pas gymnastique!

Gero igortzen zazkidan aneiak chehetasun batzu, ahanzteko hobeak, eta ja ahantzicheak ditugunak, geroztik onerat egin baitugu sailaren burutik buru.

Eskualdun-aren irakurtzalek atsegin handirekin aste gehienez irakurtzen duketen batek igorri chehetasunak Eguerri gau eta eguneko pesta ederraz, ikustearekin, jelostu nitzaio. Ah! zer berri hunkigarriak ginituzken guk ere igortzeko gure chokotik! Bainan eztakit nola utzi dut padara ona galtzerat, Eskualdunaren irakurtzalentzat nik ere zerbeiten igortzeko. Barkatu; hitzemaiten dautzut goizago ernatzea hemendik harat.

Gorraintzi adichkideri.

MENDIEZ HARAINDITIK

Egun zortziko *Eskualdun*-ak ekarri du auzo erresumatar Jaun ohoragarri gutartean egoitzaz Donibane-Lohitzunen finkatua dagon *Julio de Urquijo*-ren letra bat bizia : baizik eta egundaino bezen atchikia dela Jaun hori Frantziari; chede gaichtoko elheketari batzuek gezurra derasatela, diotenean Jaun hori gure etsaien alde dugula oraiko gerla huntan.

Ez-bai horri buruz deusetan ez ginelarik barne, gu, *Eskualdun* huntakoak; ez ginakielarik ere zertaz zen hor solas, bihotz onez eman dugu eskualtzale argitu aiphamen handikoak galdegina.

Baiginuken bospasei hilabethe huntan bertzerik ere aiphatzeko; eskualde beretik, gure eskualdun aneia, gure adichkide zin batzuen elhe bihotz on hoberenetarikakoen hitz batzu, gogoan barna sarthurik baitauzkagu; bainan gerlan gerlako lege, manu, debeku, kontseilu; galdatua zauku goragokoetarik, ahal bezen guti edo batere ez giten mintza auzo mendi hoitaz haraindiko eskualdun ala erdaldun batzu adichkide, bertzeak ez ditugulakoaz, alemanarekilako gerla huntan.

Bagaude beraz eta horra zertako gauden ichil. Ez erresuma, ez hiri, ez herri, ez gizon, eztugu aspaldian gehiago, nor ez non, deus aiphatzen gehiago.

Alde dituguneri esker on diotegu bihotzaren eraditik hemenche hitz gutiz egun, Badakite balinka gargoitik, hek guri bezen atchikiak gaudela gu heieri.

Etsaiaren aldea daukateneri deus ez diotegu galdatzen, ez eta deus ihardesten. Begoite nahutena erran eta ahal daukuten kaltea egin.

Geroak emanen du argitan egia, eta zuzena indarretan Jainkoaren laguntzarekin.

Badakizue, irakurtzaleak, gerla aitzinean baginituela *Eskualdun* maite huntaratuak, beren saila gurearen aldera hemen zeramatenak, hein bat ederki eta eskualdunki, mendiez haraindiko eskualdun aneia batzu.

Atsegin bezen ohore zitzaukun heien laguntza, eta irakurtzale ohartuenetan ere baginazkien aste bakotch begiak churiturik zaudenak hemen irakurtzeari, bereziki jaun hoitarik bien elhe sail arthoski aphainduak; bihotzez ala buruz bata bertzea bezen aberats; batek hatsa luzechago, bertzeak urhatsa jarraikiago.

Bardin adichkide biak gure; ga, bien.

Halaber, nahiz bakanchago, bihotz beraz, chede beraz *Eskualdun*-ari beren eskukaldia ja emaiten ziotenak.

Grori milesker iraganeko atchikimenduaz; ba ere oraikoaz; eta zertako ez oraidanik .. sarrikoaz ?

Gerlaren hastapenetik hunat, bereziki Urthe Berriren kariala, igorri dauzkuten lerro altchagariak bihotzean barna sarthurik dakarzkagu.

Jakin-gura litazkeneri egun hautan gure eskualdu haurride lan huntan lan guntzale ohien berri, sola huna saren azken hitz ; Gurekin ditugu eta gure alde, geroago eta aldeago *Eskualdun*-aren, mendiez haraindiko langile lagunak.

Guhauren « *urthe on* » arekin har. ditzatela hemen, irakurtzaleak, zuen goraintziak.

Esku tinka elgarri. Guk etsai hau garhaiturik lehenbailehen, gitezela elgarrentzat eginak giren hauk hemen berriz elgarren ganat hurbil.

Agian bertze urthats gabe ahantzia ukanen dugu orai hein huntan berech gauzkan nahigabeal

Maisons Recommandées

BAYONNE

BANDAGISTE-COUTELIER : Giral, Lesser. tol, sr., 5, rue Argenterie.
BIJOUTERIE : Articles de religion, Diharce 3, rue Argenterie.
CHARBONS ANGLAIS : Worms et Cie, armateurs, 8, Allées Boufflets.
CHAUSSURES : Lorda, 17, rue Port-de-Castets
CHIRURGIEN-DENTISTE : Iratchet Cantero, 1, rue Poissonnerie, face aux Halles
EPICERIE EN GROS : Maison Urtasun, rue d'Espagne, 10-12. Téléphone N° 1.43.
GRANDS MAGASINS du PRINTEMPS, rues Port-Neuf et Gambetta.
MEUBLES : Maison Cassiau, 2, Quai Galuperie.
QUINCAILLERIE : A. Soulard, rue Argenterie.
TIMBRES-PRIMES de l'Union Bayonnaise et Régionale à réclamer dans toutes les Epiceries.
TEINTURIER-DEGRAISSEUR : Maison Lague, 4, rue Victor Hugo, Bayonne.
VINS ET SPIRITUEUX : Graolet, rues Sabaterie et Vieille Boucherie.

Union Bayonnaise et Régionale

DELAKOAREN

TIMBREA

Aurthen ez dute Baionako botigesek estreinarik emaiten, bainan ba *timbreak*, iragan urthean bezala.

Hori zuzen da. Erosleak hola gehichago timbre biltzen du, eta araberan gehichago prima ukhaiten.

« *Union Régionale Bayonnaise* » horrek baitu emanak jadanik bi mila prima baino gehiago.

Heien gozatzaleak oro kontent : egundaino ez dutela ukan holako presentik

Galda zazue beraz orok "timbre chistera. Guzien abantailetan izanen da.

Dépôt de primes et Magasin d'Exposition
ENTRÉE LIBRE - 20, rue d'Espagne, 20 - ENTRÉE LIBRE
BAYONNE

BIARRITZ, Épicerie Labèguerie, avenue des Pyrénées ; épicerie Lassalle, rue Chemin de Pioche.
HASPARREN. chez M. Ingres, pâtissier, rue Neuve.
ST-JEAN-DE-LUZ, Grand boulevard, chez M. Estoueigt, coiffeur.
ST-JEAN-PIED-DE-PORT, chez M. Jauréguibéhère, rue d'Espagne.

A VENDRE, Immeuble, Mendionde, Contenance 25 *hectares* environ.
Immeuble, St-Esteben, non loin de la route, 22 *hectares* environ.
Facilité de paiement.
S'adresser au bureau du journal.

AMERIKETARAT

Ameriketarat joan nahi dena, BARBIER, Doniane Garazikoari adreza dadila. *Agent d'émigration* bezala ezagutua da Gobernioaz. Eta nola, egun guziez behar baitu Bordelerat bere komisionentzat, *untziraino* lagunduko edo laguntaraziko ditu nausiari.

HOTEL DES BASQUES & DU BEARN

Etienne ROUDET, 217, cours St-Jean
BORDEAUX

Ene etchea garatik hurbil, ehun metretan gurenetik, ongi ezagutua da AMERIKETARAT joaiten diren guziez; hemen segur dire izaiteaz beren harat hunaten egiteko behar dituzten, errechtasun guzionk!
Janak eta kamberak merke; jenden ahalaren arabera.

Porcelaines et Cristaux

MAISON FONDÉE EN 1843
Jules LACHIQUE
BAYONNE
GROS — DÉTAIL

Jules MONDRAN

2, place Notre-Dame, BAYONNE
Oihaleria mota guzietarik
OROTAN BAINO MERKEAGO

Eugène Candau hagin atheratzale, ahoko arthatzale « *chirurgien-dentiste* » ezagutua, medela urhezkoak eta oro dituena, zuen zerbitzuko izanen da : astelehen guziez Donianen, ortzirale guziez, Dona paleun ; bertze egun guziez Maulen.

Le Gérant : E. DUBOURDIEU.
Bayonne, Imprimerie Foltzer.